




Arte Ederretako ikasleen sormena, EHUren ondare

Barakaldoko udaletxeko Erakusketa Aretoan EHUko ikasleen artelanak daude hilaren 23a arte

Irigo Oabarri • Barakaldo

HASI urtarrilaren 9an eta hilaren 23a arte Barakaldoko udaletxeko Erakusketa Aretoan EHUko Arte Ondarearen VIII. deialdian parte hartu duten artisten lanak egongo dira ikusgai. Aurtun hamar lan erosiko ditu Euskal Herriko Unibertsitateak. «Hori izaten da batez bestekoa. Aurtun zortzigarren deialdia izan da, eta, beraz, esan genezake Euskal Herriko Unibertsitateak 100 artelan inguru izango dituela».

Guztira 150 artelan izan dira lehian, gutxi gorabehera, ekitaldion. Horietatik hautatu dituztenak dira: Kepa Garrazaren *Bonaparte 130gr*, Ana Lecetaren *Amores y desamores de un chicle*, Iñaki Riaren *Bolsa para el absoluto*, Ana Barrenetxearen izenburu gabekoa, Jon Ander Iriarteren *Intrusion I*, Jabi Nevado eta David Sanchezen *Receta*

para magdalenas de limon, Ines San Sebastianen *Deseo sexual III*, Cristina Mirandaren *El ser luminoso del agua*, Jon Etxebarriaren *Land escape* eta Grupo 2 Masean —Alazne Amutxategi, Miren Gonzalez, Mikel Ramirez eta Saioa del Olmo— *Habitos deshabitados*.

Ikasleen lekukotza

EHUko Arte Ondarearen deialdia urteroko kontua da. Euskal Herriko Unibertsitateak Arte Ederretako ikasleei egiten dien gonbita da. Azken urteetako ikasleek eta doktoradutza egiten ari direnek parte hartzen dute, eta ondoren, interesgarrien jotzen dituenak hautatu eta erosten ditu Unibertsitateak.

Duela zortzi urte erabakia zuen Euskal Herriko Unibertsitateak deialdia sortzea. «Lekukotasun bat gordetzeko modua da», Javier Moreno Arte Ederretako Fakultateko dekanordearen irudiko: «Urtero 300 lagun lizentziatzen dira, eta haien sormena-



Erakusketa Aretoan, EHUk erosi dituen lanez gain, aukeraketaren azken fasera igaro zirenak ere badaude.

ren lekukotasuna bertan geratzeko modua zen».

Mota guztietako teknika eta euskarriak darabiltzate ikasleek euren artelanak osatzeko. Ohikoak —margoak, grabatuak, eskulturak...— eta teknologia berrien bitartez egindakoak jaso ohi dituzte epaimahaikideek. Urtero, artista ezagunak izaten dira epaimahaikideen artean, aurtun Dario Urzay pintorea eta Ricardo Catania eskultorea izan dira.

EHUk erositako artelaneekin erakusketak antolatzen dira. Estreinakoa Arte Ederretako Fakultatean bertan egin ohi dute. Orain, Barakaldoko udaletxeko Erakusketa Aretoan dago, eta hurrengoan, Vital Kutxa Fundazioak Gasteizen duen Dendaraban izango da. Horren ondotik, EHUko agintariek erabakiko dute campusetan non eta nola paratu erosi berri dituzten artelanak.

EHUko Arte Ondarearen deialdien bidez Euskal Herriko Unibertsitateak 100 artelan inguru erosi dizkie Arte Ederretako ikasleei

120.000 artikuluko katalogo bat kontsultatu nahiko nuke, etxetik mugitu gabe erosteko eta %5eko deskontuarekin.

Zer egin behar dut?



Interneteko zure denda
megadenda